



ALKIZAKO UDALA  
(GIPUZKOA)

## **UDALBATZARRAK 2014ko OTSAILAREN 26an EGINDAKO OHIKO BILKURAREN AKTA**

2014ko otsailaren 26an, Alkizako Udaletxean, arratsaldeko 20.30etan, Jon Umerez Urrezola Alkatearen Lehendakaritzapean behean aipatzen diren zinegotziak bildurik, ondorengo erabakiak hartu ziren :

ALKATEA : Jon Umerez Urrezola

ZINEGOTZIAK : Koldobika Jauregi Zinkunegi.  
Jose M<sup>a</sup> Aranzabe Urruzola  
Onintza Gorostidi Murua  
Jose Ramon Hernandez Cristobal  
Uxue Etxebeste Eizagirre  
Leire Otegi Elola

IDAZKARIA: Ane Gomez Urteaga

Ondorengo gaiak aztertu eta erabaki ziren:

- 1. Aurreko bilkuretako akten onespena.**  
2013ko urtarrilaren 28an egindako ohiko bilkuraren akta.
- 2. Alkatetza ebazpenen berri ematea.**
- 3. Fakturak eta ordainketak.**
- 4. 2014 ekitaldirako udal aurrekonturen espedientearen hasierako onespena, hala bada.**
- 5. Kirol Patronatoak eginiko 2014 urteko diru-laguntza eskaeraren azterketa, hala bada.**
- 6. XI.Aiztondo Klasikoari "PATXI ALKORTA MEMORIALARI" 2014ko ekarpena burutzea, hala bada.**
- 7. Oilategitik Elkarteak 2013 urtean jasotako diru-laguntzaren kitapenaren berri ematea, hala bada.**
- 8. Espetxe-zigorak Alkizako Udalaren alde lan eginez ordezkatzeko erregelamenduaren behin betiko onespena, hala bada.**
- 9. Alkizako Berandegui baserriari loturik dauden hainbat terreno segregatzeko baimena eskaera, J.L.B.**
- 10. Beste batzuk.**



ALKIZAKO UDALA  
(GIPUZKOA)

## 11. Erregu, galdera eta mozioak.

.../...

### **LEHENENGO PUNTUA** **AURREKO BILKURETAKO AKTEN ONESPENA**

- 2014ko urtarrilaren 28ko ohiko bilkuraren akta. Irakurri ondoren bertaratuek aho batez onestu dute.

Akta Udaletxeko Iragarki Taulan eta Web orrialdean argitaratzea erabaki da.

### **BIGARREN PUNTUA** **ALKATETZA EBAZPENEN BERRI EMATEA**

Ondoren aipatzen diren Alkatetza Ebazpenak eman direla adierazi du Udaleko Behin Behineko Idazkari-Kontuhartzaileak, bertaratuak jakinaren gainean geratu direlarik:

05/2014 Alkatetza Ebazpena, urtarrilaren 17koa, Faktura txikien zerrenda onartu eta bere ordainketa burutu dadila agintzea, ebazten duena.

06/2014 Alkatetza Ebazpena, urtarrilaren 29koa, 2013 urteko bigarren goi-uraren tasaren udal errolda onartzea, ebazten duena.

07/2014 Alkatetza Ebazpena, urtarrilaren 29koa, A.C.N. andreak eginiko eskaera partzialki onestea, ebazten duena.

08/2014 Alkatetza Ebazpena, otsailaren 7koa, Hutsik dagoen idazkari-kontuhartzaile postua betetzeko berarizko oinarriak onartzea, ebazten duena.

08 bis/2014 Alkatetza Ebazpena, otsailaren 17koa, Faktura txikien zerrenda onartu eta bere ordainketa burutu dadila agintzea, ebazten duena.

### **HIRUGARREN PUNTUA** **FAKTURAK ETA ORDAINKETAK**

Ondorengo faktura zerrenda aurkeztu zen:

- CHIMENEAS ERRE	233,53€
- TIRSA	881,00€
- TECNIKRONOS	3.236,75€



ALKIZAKO UDALA  
(GIPUZKOA)

- TGIUZ	10.681,88€
- QUISER	160,91€
- ARGIA	145,00€
- DIMARPE,SL	142,61€
- ULAHI	816,75€
- INFORMATICA	840,95€
- FONTANERIA ANTZIETA	295,30€
- IZADI	305,89€
- AUDAX	200,35€
-AUDAX	614,45€
- LABUR	184,65€
- TOLOMENDI	122,40€
- ELECTRICIDAD ZIZURKIL	649,77€
-GRUPO FRANCIS LEFEBVRE	832,12€
- GAS NATURAL FENOSA	993,39€
- GAS NATURAL FENOSA	128,11€
- GAS NATURAL FENOSA	255,67€
- GAS NATURAL FENOSA	137,66€
- GAS NATURAL FENOSA	351,12€
- GAS NATURAL FENOSA	266,76€
- MOVISTAR	188,73€

Gaia azterturik bertaratuek aho batez ondorengoa,

#### ERABAKITZEN DUTE

LEHENA.- Guztira **21.784,75** eurotako kopurua duen faktura zerrendari onespena ematea.

#### **LAUGARREN PUNTUA**

#### **2014 EKITALDIRAKO UDAL AURREKONTUREN ESPEDIENTEAREN HASIERAKO ONESPENA, HALA BADA**

Ikusirik 2014 urterako Udal Aurrekontuaren proiektua non 2014 urterako ekitaldi ekonomikoan Udalak izango dituen diru sarreraren eta gastuen partidak jasotzen diren.

Ikusirik aurrekontuaren dokumentuari eransten zaion dokumentazioa, hau da memoria, pertsonalaren eranskina, aurrekontua betearazteko araua eta bestelakoak.

Ikusirik 2014ko otsailaren 20an Udaleko Behin behineko Idazkari Kontuhartzaileak eginiko txostenean dioena.



ALKIZAKO UDALA  
(GIPUZKOA)

Gaia azterturik Udalbatzarrak aho batez ondorengo,

### ERABAKITZEN DU

LEHENA.- 2014 urterako Alkizako Udaleko Aurrekontuaren espedientea osatzen duen dokumentazioari, hau da, memoria, lanpostu zerrenda, Plantila Organikoa, aurrekontua betearazteko arau eta bere eranskinei hasierako onespena ematea.

BIGARRENA.- Aurrekontuaren espedientearen hasierako onespeneren iragarkia Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratzea eta hamabost egunetako epean dokumentua jendaurrean ipini edonork aztertu eta egoki dituen alegazioak zein iradokizunak burutu ditzan. Aipaturiko epean alegaziorik zein iradokizunik aurkeztuko ez balitz behin betirako onartuta geratuko da.

**2014 ekitaldirako Udal Aurrekontu Orokorren laburpena kapituloka ondorengo da:**

### SARREREN EGOERA

1.- Zuzeneko zergak:	56.500,00
2.- Zeharkako zergak:	8.221,38
3.- Tasak eta bestelako sarrerak:	59.515,00
4.- Transferentzia arruntak:	283.014,00
5.- Ondarezko sarrerak:	4.310,00
6.- Inbertsio errealak inoreng.:	0,00
7.- Kapital transferentziak:	293.519,12
8.- Finantza aktiboak	0,00
9.- Finantza pasiboak	0,00

**GUZTIRA: 705.079,50 €**

### GASTUEN EGOERA

1.- Pertsonal gastuak:	140.150,00
2.- Ondasun arrunten erosketak:	101.328,00
3.- Finantza Gastuak:	1.000,00
4.-Transferentzia arruntak:	92.830,50
6.- Inbertsio errealak:	359.471,00
7.-Kapital Trasferentziak	0,00
8.- Finantza aktiboak	300,00



ALKIZAKO UDALA  
(GIPUZKOA)

9.- Finantza pasiboak 0,00

**GUZTIRA: 705.079,50 €**

**BOSTGARREN PUNTUA**

**KIROL PATRONATOAK EGINIKO 2014 URTEKO DIRU-LAGUNTZA  
ESKAERAREN AZTERKETA, HALA BADA**

Ikusirik Alkizako Kirol Patronatuak eginiko eskaera, non azaltzen duten 2014 urterako prestatu nahi dituzten ekintzak burutu ahal izateko laguntza ekonomikoa behar dutela.

Ikusirik 2014 urteko aurrekontuetan, Alkizako Kirol Patronatuari esleitzeko 1.920,00 eurotako partida bat dagoela.

Ikusirik 2014 urterako Alkizako Udalaren aurrekontuan partida nahikoa aurreikusi dela.

Gaia azterturik, Udalbatza honek, Leire Otegi zinegotziaren abstentzioarekin, gehiengoz, ondorengo

**ERABAKITZEN DU:**

LEHENA: Alkizako Kirol Patronatuari 1.920,00.- eurotako diru-laguntza ematea, 2014 urtean prestatu dituzten ekintzak burutu ahal izateko.

BIGARRENA: 1.920,00.- eurotako gastua onartzea.

HIRUGARRENA: Alkizako Kirol Patronatuari jakinaraztea, urte bukaeran, urtean zehar eginiko ekintzei buruzko gastuen kitapena aurkeztu beharko dutela.

LAUGARRENA: Erabaki honen berri Alkizako Kirol Patronatuari ematea.

**SEIGARREN PUNTUA**

**XI.AIZTONGO KLASIKOARI "PATXI ALKORTA MEMORIALARI" 2014KO  
EKARPEN BURUTZEA, HALA BADA**

Ikusirik X. Aiztondo Klasikoa "Patxi Alkorta Memoriale" -ren kitapena prestatu dutela. Alkizako Udalak, egindako ekarpena 1.444,81 euro izan zen eta kitapena 1.488,21 euro izan dira, beraz, 43,40 eurotako defizita egon da.



ALKIZAKO UDALA  
(GIPUZKOA)

Ikusirik Aiztondo Klasikaren Batzordetik igorritako idatzia, non dioten 2014ko martxoaren 9an jokatuko den XI. Aiztondo Klasikoa "Patxi Alkorta memorialaren" gastuei aurre egiteko 2014 urterako Alkizako Udalak burutu beharreko ekarpena 1.482,83 eurotan finkatzen duen.

Ikusirik 2014 urterako Alkizako Udalaren aurrekontuan partida nahikoa aurreikusi dela.

Gaia azterturik, Udalbatza honek, aho batez ondorengo

### ERABAKITZEN DU

LEHENA.- X. Aiztondo klasikoa "Patxi Alkorta Memoriala"-ren kitapena onestea.

BIGARRENA.- Aiztondo Klasikaren Batzordeari 1.482,83 eurotako ekarpena burutzea, 2014ko martxoaren 9an XI. Aiztondo Klasikoa "Patxi Alkorta memoriala" antolatu ahal izateko, gastuei aurre egiteko.

HIRUGARRENA.- 1.482,83 eurotako gastua onestea.

### **ZAZPIGARREN PUNTUA**

### **OILATEGITIK ELKARTEAK 2013 URTEAN JASOTAKO DIRU-LAGUNTZAREN KITAPENAREN BERRI EMATEA, HALA BADA**

Ikusirik Alkizako Udalak, 2013urtean Oilategitik Elkarteari 1.500 eurotako diru-laguntza eman ziola.

Ikusirik Oilategitik Elkarteak, Alkizako Udalean aurkeztu dituela, 2013. Urteari dagokion gastuen kitapena, ondorengo izanik:

#### **GASTUAK:**

a)Funtzionamendu gastuak	84,00
b)Fotomekanika eta inprimaketa	2.943,20
c)Webgunea ostatatzea	211,75
d)Beste gastu batzuk: banaketa	100,00
<b>GUZTIRA:</b>	<b>3.338,95</b>

#### **SARRERAK:**

a)Alkizako Udala	1.500,00
b)Foru Aldundia	1.500,00
c)Elkartearen ekarpena	338,95
<b>GUZTIRA:</b>	<b>3.338,95</b>



ALKIZAKO UDALA  
(GIPUZKOA)

Gaia azterturik Udalbatza honek aho batez ondorengoa,

ERABAKITZEN DU:

BAKARRA.- Oilategitik Kultur Elkarteak, aurkezturiko 2013. Urteari dagokion gastuen kitapena onestea.

**ZORTZIGARREN PUNTUA**

**ESPETXE-ZIGORRAK ALKIZAKO UDALAREN ALDE LAN EGINEZ ORDEZKATZEKO ERREGELAMENDUAREN BEHIN BETIKO ONESPENA, HALA BADA**

Ikusirik espetxe-zigorak Alkizako Udalaren alde lan eginez ordezkatzeko erregelamendua 2013ko azaroaren 5ean egindako Udalbatzarrean hasierako onespena eman zitzaiola.

Ikusirik 2013ko abenduaren 19ko Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean eta Udaletxeko iragarki taulan aipaturiko espedientea jendaurrean jarri zela, hogeita hamar egunetako epean, espedientea aztertu eta bidezko alegazioak eta iradokizunak aurkezteko.

Ikusirik goian aipaturiko epean ez dela inolako alegazio edo iradokizunik aurkeztu.

Gaia azterturik, Udalbatza honek, aho batez, ondorengoa

ERABAKITZEN DU:

LEHENA: Espetxe-zigorak Alkizako udalaren alde lan eginez ordezkatzeko erregelamendua behin betikoz onestea.

BIGARRENA: Espetxe-zigorak Alkizako Udalaren alde lan eginez ordezkatzeko erregelamenduaren testu osoa Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu, apirilaren 2ko 7/85 Legeak, Toki-Administrazioaren Araubidearen oinarriak arautzen dituenak, 70.2 artikuluan xedatutakoa bete dadin.

**BEDERATZIGARREN PUNTUA**

**ALKIZAKO BERANDEGUI BASERRIARI LOTURIK DAUDEN HAINBAT TERRENO SEGREGATZEKO BAIMENA ESKAERA, J.L.B.**



ALKIZAKO UDALA  
(GIPUZKOA)

Ikusirik J.L.B.I. jaunak eginiko eskera, non Berandegui baserriari loturik dauden "ARRATE-GOYENAREN AZPI ALDEA, ERLAISTONDO-AZPIA, CIGARRA, SUSTAERREKA, OLLARBIL, OLLARBIL, ILLARRALDEGUI, BELAKOGAÑA, GARAIKO-ZABAL, EGUIEDER-SAGATZA, ITZURREGI-ZARRA" terrenoak segregatzeko baimena eskaera egiten duen, ondoren terreno hauek Alkizako Udalari saltzeko, hauek Ernio Gazume Kontserbazio eremu bereziko gunearen barruan daudenez.

Ikusirik Berandegui baserriari loturik dauden terrenoen (segregatu nahi direnak) deskribapena ondorengo dela:

.../...

e) *El argomal llamado ARRATE-GOYENAREN AZPI ALDEA, de doscientas veintinueve posturas equivalente a sesenta y seis áreas y ochenta y seis centiáreas, que linda por Oriente, con otro trozo de Katalandegui; por Mediodía, con terrenos del caserío Sarobe; por Poniente, con el trozo de Etxesagasti, y por Norte, con terrenos antes de la sociedad de la plaza y ahora del caserío María Anton.*

g) *El terreno jaral llamado ERLAISTONDO AZPIA, de ciento sesenta y cuatro áreas y veintinueve centiáreas de cabida, lindante por Oriente, con terreno de la casería Berandoain; por Mediodía con el de la casería Perurena y la regata; por Poniente, con el de la casería Etxesagasti y por Norte, con terrenos de sucesores de Rafael Usabiaga y camino carretil público.*

h) *Terreno hayal y peñascal llamado CIGARRA de ciento setenta y seis áreas de cabida, que linda: por Norte, con la peña; por Oriente, con la regata y terreno de la casería Alkizalete; por Mediodía, con terreno de sucesores de Miguel Antonio Urruzola, y por Poniente, con el de la casería Itxasagasti.*

i) *El terreno hayal llamado SUSTAERREKA, de treinta y cinco áreas cincuenta centiáreas, que linda por Oriente, con una regatilla; por Mediodía, con la peña y por Poniente y Norte, con terreno de la casería Alkizalete.*

j) *El terreno robledal llamado OLLARBIL, de setenta y cuatro áreas y cincuenta centésimas de cabida, con descuento de un camino que le atraviesa, lindante, por Oriente, con terreno de los sucesores de Francisco María Mugica; por Mediodía, con terreno de sucesores de Tiburcio Tapi; por Poniente, con el de sucesores de Pedro Antonio Ubalde y Martín Usabiaga y por Norte, con el de sucesores de Pedro Iruretagoyena de Miguel Antonio Gabilondo y de la casería Perurena. Existe dentro del perímetro del terreno anterior, una borda o albergue para el ganado, que ocupa un solar de noventa y cuatro centiáreas y*





ALKIZAKO UDALA  
(GIPUZKOA)

*consta de planta baja solamente.*

*k)El terreno robledal llamado también OLLARBIL, de treinta y nueve áreas y ochenta y dos centiáreas de cabida, lindante por Oriente, con terreno de herederos de Martín Usabiaga; por Mediodía, con el de sucesores de Pedro Antonio Ubalde; Por poniente, con terrenos de sucesores de Jose Martín Minteguiaga, Gabriel Aramburu y Santiago Iruretagoyena, y por Norte, con el de sucesores de Pedro María Legarra.*

*l)El terreno hayal denominado ILLARRALDEGUI, de diecinueve áreas y veinticinco centiáreas de cabida que linda: por Oriente, con terreno de la casería Alkizalete, por Mediodía, con el de sucesores de José Ignacio Gabilondo; por Poniente, con una ragatilla, y por Norte, con terreno de los herederos de Antonio Arzuaga.*

*ll)El terreno BELAKOGAÑA de setenta y nueve áreas y treinta centiáreas de cabida, con descuento de un camino carretil que lo atraviesa, lindante por Oriente, con terreno de sucesores de Antonio Urruzola; por Mediodía, con el de la casería Garro, y por Poniente, y Norte, con el de sucesores de Ignacio Saguizar.*

*m)El terreno helechal nombrado AZPIKO ZABAL, de sesenta y cuatro áreas y cinco centiáreas, lindante por Oriente, con terreno de la casería Perurena; por Poniente, con el de la casería Garro; por Mediodía, con el de sucesores de Pedro Antonio Aranzabe, y por Norte, con el de sucesores de Miguel Antonio Urruzola y la casería Perurena.*

*n)El terreno hayal y helechal llamado GARAIKO ZABAL, de doscientos setenta y siete áreas setenta y ocho centiáreas, lindante por Oriente, con terrenos de las caserías Perurena y Urrutiko-etxea: por Mediodía, con terreno de la casería Alkizalete y de sucesores de Jose Marin Minteguiaga; por Poniente, con la regatilla y por Norte, con terrenos de sucesores de Jose Agustin Egaña y Pedro Antonio Aranzabe.*

*ñ) El terreno hayal llamado EGUIEDER SAGATZA, de cincuenta y dos áreas ochenta y dos centiáreas de cabida, que linda por Oriente, con terreno de la Iglesia, por Mediodía, con el de la casería Unzalo, por Poniente, con el de la casería Perurena, y por Norte, con los de las caserías Lete Berria y Basarte.*

*o)El terreno helechal llamado ITZURREGI ZARRA, de treinta y dos áreas de cabida, lindante al Este, con terreno del caserío Mariategui; por Sur, con el de Lete Berri; por Oeste, con el de Irazabal y por Norte, con el de Areta.*



ALKIZAKO UDALA  
(GIPUZKOA)

Gaia azterturik, Udalbatza honek, aho batez, ondorengoa

ERABAKITZEN DU:

LEHENA: J.L.B. jaunak eginiko eskaera onestu, hau da Berandegui baserriari loturik dauden “ Arrate Goyenaren azpi aldea, Erlaistondo azpia, Cigarra, Sustaerreka, Ollarbil, Ollarbil, Illaraldegui, Belakogaña, Azpiko zabal, Garaiko zabal, Eguieder eta Itzurregi zarra terrenoak”, guztira 108.212m<sup>2</sup> dituztenak segregatzeko baimena ematea, ondoren Alkizako Udalari saltzeko, Ernio Gazume Kontserbazio eremu bereziko gunearen barruan daudenez.

BIGARRENA: Erabaki honen berri J.L.B. jaunari ematea.

**HAMARGARREN PUNTUA**  
**BESTE BATZUK**

***Presazko arrazoiak direla eta gai zerrendan ez zeuden ondorengo puntuak aztertzea erabaki dute bertaratuek aho batez.***

**10.1. ALKIZAKO UDALAK, BERANDEGUI BASERRIKOAK ZIREN ARRATE GOYENAREN AZPI ALDEA, ERLAISTONDO AZPIA, CIGARRA, SUSTAERREKA, OLLARBIL, OLLARBIL, ILLARALDEGUI, BELAKOGAÑA, AZPIKO ZABAL, GARAICO ZABAL, EGUIEDER SAGATZA ETA ITZURREGI ZARRA TERRENOAK EROSTEKO ONESPENA EMATEA, HALA BADA**

Ikusirik Alkizako Udalak interesa duela, Eusko Jaurlaritzak ateratako diru-laguntza baten barruan, Ernio Gazume Kontserbazio eremu bereziko gunearen barruan dauden terrenoak erosteko.

Ikusirik J.L.B.I jaunak interesa duela Ernio Gazume barruan dauden terreno batzuk saltzeko, konkretuki Arrate Goyenaren azpi aldea, Erlaistondo azpia, Cigarra, Sustaerreka, Ollarbil, Ollarbil, Illaraldegui, Belakogaña, Azpiko zabal, Garaiko zabal, Eguieder eta Itzurregi zarra terrenoak, guztira 108.212m<sup>2</sup> dituztelarik.

Kontutan izanik Alkizako Udalak, hektareako 5.000 euro ordaintzen ari dela eta terreno jabea diru kopuru honekin ados dagoela.

Gaia azterturik, Udalbatza honek, aho batez, ondorengoa

ERABAKITZEN DU:

LEHENA: Alkizako Udalak, J.L.B.I. jaunaren jabetzakoak diren Arrate



ALKIZAKO UDALA  
(GIPUZKOA)

Goyenaren azpi aldea, Erlaistondo azpia, Cigarra, Sustaerreka, Ollarbil, Ollarbil, Illaraldegui, Belakogaña, Azpiko zabal, Garaiko zabal, Eguieder eta Itzurregi zarra terrenoak erosteko onespena ematea, 54.106 urotako diru-kopuruan.

BIGARRENA: Alkate-Lehendakaria den Jon Umerez Urrezola jauna ahalmenu, erabaki hau gauzatzeko dagozkion dokumentuak sinatzeko.

## **10.2. ERNIOZALEAK KULTUR ELKARTEA ETA LARRAULGO UDALAREN ARTEKO HITZARMENAREN ONESPENA, HALA BADA, ERNIO INGURUAN DAUDEN ZORTZI HERRIEN ARTEAN BI URTEZ BEHIN EGITEN DEN IBILALDIAREN ANTOLAKUNTZARAKO**

Ikusirik Erniozaleak Kultur Elkarteak igorritako hitzarmenaren zirriborroa, Aiako Udalak, Albizturgo Udalak, Alkizako Udalak, Asteasuko Udalak, Bidegoiango Udalak, Errezilgo Udalak, Hernialdeko Udalak eta Larraulgo Udalak onartu dezaten, non Ernio inguruan dauden zortzi herrien artean bi urtez behin egiten den ibilaldiaren antolaketa arautzen den.

Ikusirik aipaturiko hitzarmena 14 urteetarako iraupena izango duela.

Gaia azterturik, Udalbatza honek, aho batez, ondorengoa

### **ERABAKITZEN DU:**

LEHENA: Erniozaleak Kultur Elkarteak, Aiako Udalak, Albizturgo Udalak, Alkizako Udalak, Asteasuko Udalak, Bidegoiango Udalak, Errezilgo Udalak, Hernialdeko Udalak eta Larraulgo Udalaren arteko hitzarmenaren onespena, Ernio inguruan dauden zortzi herrien artean bi urtez behin egiten den ibilaldiaren antolaketa arautzeko.

BIGARRENA: Jon Umerez Urrezola Alkate-Lehendakariari, ahalmena ematea aipaturiko hitzarmena sinatu dezan.

HIRUGARRENA: Erabaki honen berri Erniozaleak Kultur Elkarteari ematea.

## **10.3. AITZETAGAIN ETXEAREN LURRETAN TXABOLA BAT EGITEKO BAIMENA ESKAERA, J.M.O.**

Ikusirik, J.M.O. jaunak eginiko eskaera, non Alkizako Aitzetagain etxearen lurretan txabola bat egiteko obra baimena eskaera egiten duen.

Ikusirik 2013ko otsailaren 4an Udal Aholkulari Teknikoak eginiko eskaeran dioena:



ALKIZAKO UDALA  
(GIPUZKOA)

## **“ALKIZAKO AITZETAGOI EDO ARITZATEGIGARAIIKOA ETXEAREN LURRETAN TXABOLA BAT EGITEKO ESKAERARI BURUZKO TXOSTENA**

*J.M.O. jaunak, Aitzetagoi etxearen inguruetan 15m<sup>2</sup>-ko txabola bat egiteko baimena eskatzen du, lanen batzbesteko aurrekontu, lekuaren plano eta eraikinaren marrazki batzuk aurkezten dituelarik. Aurreko dokumentazioa ikusirik, ZERA ADIERAZTEN DUT:*

*Aurkeztutako idatziaren arabera, txabolaren neurriak 3mx5m izango dira eta gehienezko altuera 2,60m. Itxiturentzat erabiliko diren materialak bloke raseatua eta xafla metalikoa dira, paretaren kolorea zuria eta teilatuarena gorria izanik. Lan hauen batzbesteko kostua BEZ-a gabe 3.600€-koa da.*

*Aitzetagoi baserria, Alkizako erabilerarik esleitu gabeko lur ez urbanizagarrian kokatua dago. Baserria ez dago nekazaritza eta abeltzaintzako ustiategi bati lotua.*

*Alkizako Hiri antolaketako arauen aldaketa lurzoru hiritarrezinaren 1.5.b artikuluaen arabera, erabilerarik esleitu gabeko lur ez urbanizagarrian, etxebizitzari loturiko txabolak onar daitezke.*

*Hau horrela izanik, ustiategi bati loturik ez dagoen etxe batentzat eraikin osagarriak arautzen dituen 2.5.b artikulua bete beharko da.*

### *2.5.Art. Eraikin osagarriak*

*Txabola motako eraikin osagarriak baimenduta daude, ondoko baldintzekin;*  
*b)Nekazaritza eta abeltzaintzako ustiategiari lotuak ez diren etxebizitzak. Okupazioak ez du 25m<sup>2</sup> baino gehiago hartu beharko. Aurreko eraikinari itsatsita eraiki beharko dira, teilatuaren hegal bat luzatzeko moduan, eta emaitza eraikuntzaren osotasunarekin harmonian egoteko moduan. Altura librea 3 m-koa izango da, gehienez.*

*Kanpoko paramentuak igeltsuzkoak izango dira, kolore zurikoak; teilatuak, berriz, %35eko malda izan beharko du, eta bere teilak eraikin nagusikoaren antzekoak izan beharko dira.*

*Kanpoko arotzeria eraikin nagusikoaren antzekoa izango da. Nekazaritza-tresnak edo eskortako animaliak gordetzeko erabiliko dira.*

*Honelako txabola batek Aitzetagoi etxearen itxura orokorrari kalte egingo liokeela pentsatuz, eraikin nagusitik baztertzea onargarria dela uste dut eta aurkeztutako lanak, aurreko baldintzak betetzen dituenek, udal iruditzen zait.*

*Obra hondakinak, baimendutako zabortegei batera eraman beharko dira legeak*



ALKIZAKO UDALA  
(GIPUZKOA)

esaten duen bezala.

*\*Lanak irauten duten bitartean, legeek ezartzen dituzten arauzko segurtasun neurriak gorde beharko dira. \**

Gaia azterturik, Udalbatza honek, Leire Otegi zinegotziaren abstentzioarekin, aho batez, ondorengo

#### ERABAKITZEN DU:

LEHENA.- J.M.O. jaunak eginiko obra baimena eskaera onestu, hau da, Alkizako Aitzetagai etxearen lurretan txabola bat egiteko obra baimena ematea, betiere Udal Aholkulari Teknikoak eginiko txostenean jasotzen diren baldintzak betetzen badira.

BIGARRENA: Indarrean dauden Ordenantza fiskalen arabera dagokion kitapena onartzea.

HIRUGARRENA: Erabaki honen berri interesdunari ematea.

#### **HAMAIKAGARREN PUNTUA** **ERREGU, GALDERAK ETA MOZIOAK**

#### **11.1. “EMAKUMEEN NAZIOARTEKO EGUNAREN “** **ADIERAZPENERA ATXIKIPENA, HALA BADA**

Ikusirik, ondorengo adierazpena aurkezten dela, ondorengo diolarik:

*“Martxoaren 8a, Emakumeen Nazioarteko Eguna, aukera ona dugu omenaldia egiteko munduko emakume guztiei, batzuetan beren bizitzak arriskuan jarrita ere, euren eskubideak lortu eta defendatzeko borrokan ibili diren eta dabilzan emakume guztiei. Egokiera ona da, baita ere, feminismoa zer den aitortzeko: Kultura eta filosofia bat, gizarteria osoarentzat beharrezkoak diren balioetan oinarritzen dena. Berdintasunak pertsona guztien autonomia garatzen laguntzen du, elkartasunean oinarritutako balioak indartzen ditu, parekoen arteko hartu-emanak sustatzen ditu, eta demokrazia hobetzen laguntzen du. Berdintasuna giza eskubide bat da, jendarte osoari on egiten dion eskubidea.*

*Orain arteko lorpenak ospatzeko eguna ere bada gaurkoa. Egindako ibilbidearen erakusgarri da Eusko Legebiltzarreko jarlekuetan emakumeen eta gizonen artean dagoen oreka. Ospatzekoa da, halaber, 2005 ean Emakumeen eta Gizonen Berdintasuneko 4/2005 Legea onartu izana; izan ere, lege hori mugarrizko izan da, eta, oreka hori lortzeko, laguntza handia.*



ALKIZAKO UDALA  
(GIPUZKOA)

*Iritzi publikoari dei egiteko eguna ere badugu, aldarrikatzeko eguna, zeren eta aurrerabide sakonak lortu baiditugu ere, oraindik ere luzea da emakumeen eta gizonen artean berdintasun eraginkorra lortzeko bidea, eta ez da, ez, sufrimendurik gabekoa izango. Berdintasun benetakoa eta eraginkorra lortzea erronka da oraindik ere.*

*Baina, horretaz gain, batez ere konpromisoa hartzeko eguna da. Horregatik, gure ustea berretsi nahi dugu: irmoki uste dugu jarraitu egin behar dugula ekintzak bultzatzen, emakumeen eta gizonen artean berdintasun benetakoa eta eraginkorra lortzeko behar diren beste ekintza bultzatzen, horrela lagunduko baitugu gizarte eraginkor, solidario eta demokratiko bat eraikitzen.*

*Guztiontzat eskubide berberak lortzeko bidean aurrera egiteko, beharrezkoa da elkarlana, etenik gabe elkarrekin lan egitea gizarteak, emakumeek eta gizonen, gizarte zibilak, alderdi politikoen eta botere publikoen. Horregatik nahi genuke adierazpen hau planteamendu ideologikoetatik harago joatea, inguruabar sozial eta ekonomikoetatik harago, baita une jakin batetik harago ere, hots, martxotik harago. Izan bedi jarrera irmoa eta iraunkorra, izan bedi gure ekintzen ardatza urteko egun guztietan. Justizia sozialak hala eskatzen duelako, eta gizarte osoaren onerako izango delako.”*

Gaia azterturik, Udalbatza honek, aho batez, ondorengoa

ERABAKITZEN DU:

BAKARRA: “Martxoaren 8a: Emakumeen Nazioarteko Egunaren adierazpena” Alkizako Udalbatzak, bere osotasunean onesten du.

*Eta aztertu beharreko beste gairik ez dagoenez, Lehendakari Jaunak bilkura 22.15 etan amaitutzat eman du eta akta hau jaso da, etorri diren guztiek izenpetu dutena eta Idazkari naizen honek, aztertu denaren benetako adierazgarria dela uste duena.*